


2009ko Udaberriko Txostena

1. Bake-prozesuaren egoeraren azterketa.
2. Biktimak, sufrimendua eta berradiskidetzea.



“berradiskidetzea zuhaitz bat da, adar eta hosto guztiek izerdi, eguzki eta ur berbera jasotzen dutelako.”

(Tokiko Behatokia, Iruñea)

Aurkezpena

Lokarri Lokarri bakearen, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sarea da eta, 2006az geroztik, lanean dihardu euskal gizartearen adiskidetzeko-prozesu bat eragiteko, betiere oinarri hauek aintzat hartuta: indarkeriaren amaiera, Giza Eskubideak errespetatzea, elkarrizketaren bidezko bizikidetzak-akordio anitza zehaztea eta, azkenik, herri-kontsulta deitzea. Adiskidetzeko-prozesuak berradiskidetzeko-prozesua ekarriko luke berekin, eta prozesu hori presatzea gure gizarte-erakundearen helburu nagusietako bat ere bada.

Helburu horiek lortzeko ahaleginean, Lokarrik lehentasunezko lan bat du: hots, herritarren parte-hartzea bul tzatzea. Izan ere, gizartea sendotasunik eta aukerarik nagusienetako bat da bakeak eta bizikidetzak atzerabiderik izan ez dezaten, baina horretarako gizarteak ekimena hartzeko prest, prozesuan inplikatzeko prest eta bere ahotsa entzunarazteko prest egon behar du.

Hain zuzen ere, "Bake-prozesuaren Behatoki Soziala" izeneko proiektuak halako esparru bat izan nahi du, bi helburu hauek kontuan hartuta: batetik, interesa duten herritar guztiek bakeari eta bizikidetzari buruz zer iritzi duten askatasunez eta modu eraikigarrian adieraztea, eta bestetik, herritarrek aurrerapauso erabakigarriak ematen lagun tzeke ideia eta proposamenak aurkeztea, bai Giza Eskubideen erabateko errespetua bermatzeko bidea errazte aldera, bai gure desberdintasunak bakebidez eta era demokratikoan moldatze aldera.

Bake-prozesuaren Behatoki Sozialak, bada, bake-prozesuaren egoerari eta berradiskidetzeari buruzko iritziak bildu ditu herritarren artean, 2009ko maiatzean eta ekainean. Herritarren parte-hartzearen emaitza txosten hau da, 2009ko udaberriari dagokiona, hain zuzen. Argitu behar da ez direla inkesta zientifiko baten ondorioak, nahi izan duten herritarrek soilik parte hartu dutelako. Era berean, ez da Lokarrik bi kontu horien gainean duen ikuspegia jasotzen duen agiri bat, txostenean bilduta dagoen azterketaren funtsa zazpiehunetik gora lagunek emandako iri tzietan datzalako. Hain zuzen ere, horretan datza txostenaren balioa eta horixe bera da bere ekarpenik berritzaile-ena. Txostenaren edukiak jende askoren artean egindako kalitate handiko gogoeta lan baten emaitza dira; izan ere, galderei emandako erantzunekin batera, 3.000tik gora ideia eta ekarpen zehatz aurkeztu baitira.

Hona hemen, bestalde, Bake-prozesuaren Behatoki Sozialaren lanean parte hartzeko eskaini diren tresnak:

1- **Galdetegi bat.** 733 lagunek erantzun diote Lokarrik prestatutako galdetegiarri. Galdetegi Lokarriren web gunean egon da eskura, eta web gunetik beretik zuzenean erantzuteko aukera izan da; era berean, paperez banatu da halaxe eskatu duten herritar guztien artean eta Lokarriko laguntzaileen eta tokian tokiko foroen bitartez.

Galdetegiak bi zati desberdin izan ditu. Lehenbizikoan hainbat galdera proposatu dira bake-prozesuari buruz; bigarrena, berriz, berradiskidetzeari eskaini zaio.

2- **Bake-prozesuaren Tokiko Behatokiak.** Hamaika bilera egin dira EAEko eta Nafarroako hainbat herritan; guztira, 119 lagunek parte hartu dute, eta berradiskidetzeari, berradiskidetzeari esanahia eta edukiak izan dituzte eztabaidagai.

Txostenak bi atal ditu. Lehenbizikoak bake-prozesuaren egoerari buruzko azterketa eskaini, galdetegiko galde- rei emandako erantzunak zehaztu eta ondorioak azaltzen ditu. Bigarrena, berriz, berradiskidetzeari buruzkoa da eta galdetegiko galderei emandako erantzunak agertzeaz gain, Tokiko Behatokiaren aktak ere ageri dira; era berean, gomendioak eta ideiak eskaintzen dira berradiskidetzeari eta biktimen errekonozimendurako prozesu baten edukiak zehazten laguntzeko.

Herritarren iritzien gordailu-zaina den aldetik, Lokarrik erakundeei, alderdi politikoei, gizarte-erakundeei eta sindikatuari emango die txostena, hartan bildutako ideia guztiak aintzat hartuko direlakoan, bakea lortzen eta bizikidetzak hobetzen lagundu nahi duten herritar askoren kezken eta nahien erakusgarri baitira.

Bake-prozesuaren egoera.

Galdetegiak eskaintako emaitzen azterketa.

1. Zein da zure iritzia bake-prozesuaren egoerari buruz?

Pertzepzioa negatiboa da. 1etik 10erako eskalan parte-hartzaileen balorazioa 3,5 da. % 4rentzat baizik ez da ona edo oso ona (7tik 10era); % 23k erregularra irizten dio; % 47k txarra, eta % 25ek, oso txarra.

Egoeraren balorazio negatibo hori arrazoitzeko ematen den argudio nagusia prozesuaren blokeo-egoera da. Parte-hartzaileek adierazi dute ETAREN indarkeriak bere horretan dirauela, ez dutela Espainiako Gobernuan eta Eusko Jaurlaritzan berriaz hitz egiteko zantzurik ikusten, eta borondaterik ez dagoela aurrera jotzeko eta aferra politikoak nahiz Giza Eskubideen urraketari dagozkien arazoak konpontzeko. Nabarmendu behar da egoerari buruzko balorazio horien hoberena duten herritarrek azpimarratzen dutela ETA ahulago dagoela eta, beraz, gero eta indarkeria gutxiago dagoela.

2. Orain dela urte bat baino aukera gehiago dago bakea lortzeko?

Hiru pertsonetatik bik uste dute orain dela urte bat baino aukera gutxiago dagoela bakea lortzeko. % 21ek bakarrik pentsatzen du aukera gehiago dagoela; % 17k, ordea, dio ez duela erantzunik. Nabarmendu behar da egoerari buruzko pertzepzio ezkorra handiagoa dela gaztelaniaz erantzun dutenen artean (% 67) euskaraz erantzun dutenen artean baino (% 48).

Berriz ere, elkarrizketarik ez izatea da gehien erabilitako argudioa pertzepzio hori arrazoitzeko, eta horri gehitzen zaio ez dela pauso eta ekimen nabarmenik hautematen egoera desblokeatzeko. Era berean, gehitzen da ez dirudiela ETAK indarkeria erabiltzeari utzi nahi dionik, Ezker Abertzalearen ilegalizazioari eusten zaiola eta gobernu berria, PPK lagundurik, ez dagoela horren prest elkarrizketari berrekiteko. Aukera gehiago dagoela diotenek, ordea, nabarmen dute Ezker Abertzalean gogoeta bat dagoela indarkeriaren amaierari buruz.

3. Bake eta normalizazio gaia duela urte bat baino gehiago edo gutxiago interesatzen zaizu?

Parte-hartzaileek (% 71k) diote duela urte bat bezain interesatuta daudela; % 20k, gehiago; eta % 9k, gutxiago.

4. Seinala itzazu, zure iritzian, bakea lortzeko dauden oztopo nagusiak. Seinala itzazu 2 gehienez.

Parte-hartzaileek aukeraturiko bi oztopo nagusiak elkarrizketa gabezia (% 68) eta ETAREN indarkeria (% 68) dira. Era berean, ilegalizazioak oztopo gisa nabarmenduak ageri dira (% 30); parte-hartzaileek, ordea, ia ez dituzte hautatu galdetegiaren eskaintzen ziren gainerako aukerak: hau da, presoen sakabanaketa (% 10), kargu publikoei zuzendutako mehatxuak (% 10) eta torturak (% 7).

5. Seinala itzazu azkenaldian jazotako gertakarien artean garrantzitsuenak iruditu zaizkizunak.¹

Gertakaririk nabarmenena Gobernu aldaketa izan da (% 77) eta, gero, ilegalizazioak (% 55). Galderan ageri diren gainerako gertakariak kopuru txikiagoan ageri dira: Ezker Abertzalearen proposamen berri baten aurkezpena (% 26), ETAk Lazkaon egindako atentatua (% 22) eta Hauteskundeak (% 21). Aipatu behar da Eduardo Puellesen erailketaren ondotik galdetegiari erantzuna eman ziotenek gertakari hori ere oso garrantzitsutzat jotutela.

6. Zure iritzian, betetzen al dira bake prozesu berri bati ekiteko baldintzak?

Parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok uste du ez direla baldintzak betetzen; hirutatik batek, aldiz, esaten du betetzen direla.

Erantzuna arrazoitzeko emandako argudioen artean indartu egiten da aurreko galderetan ikusitako joera. Elkarriketarik ez izatea, ETaren indarkeriak irautea eta eragile nagusien borondaterik eza dira argudio nagusiak. Baldintzak betetzen direla diotenek, beren aldetik, azpimarratzen dute beti baldintzak betetzen direla, arazoak arazo saiatu beharra dagoela.

7. Idatz itzazu bakea lortzen lagun dezaketen bi ideia edo proposamen.

Era askotako proposamenak aurkeztu dira, baina lau nabarmendu behar dira, errepikatuenak izan direlako: 1) guztien arteko elkarriketa-prozesua hastea; 2) ETaren indarkeria amaitzea, baldintzarik gabeko beste tregua edo su-eten mugagabetik hasita, 3) inor baztertu gabeko akordioak lortzea eta 4) Giza Eskubideak beren adierarik zabalenean garatzea.

8. Idatz itzazu akordio politiko bat lortzen lagun dezaketen bi ideia eta proposamen.

Aurreko galderari era askotako erantzunak eman zaizkio; galdera honetan, ordea, ia parte-hartzaile guztiek elkarriketa-prozesu bat irekitzea proposatu dute, alde askotakoa, anitza eta inor bazter utziko ez duena. Beste ekarpen batzuk indarkeria uztea, bestelako pentsamendua duen jendearekiko enpatia lantzea, herritarren parte-hartzea sustatzea eta Alderdien Legea indargabetzea izan dira. Era berean, azpimarratzekoa da parte-hartzaile kopuru nabarmen baten iritziz, ez daitekeela akordiorik lortu alde bakoitzaren jarrerak elkarrengandik urrun daudelako.

9.1. Gobernuen ekarpenaren gaineko balorazioa.

Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Zentralaren gaineko balorazioa negatiboa da, parte-hartzaileen iritziz haien ekarpena txarra edo oso txarra baita: % 80, nafar gobernuari dagokionez, eta % 76, Zentralari doakionean. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, iritziak ez datoz bat: hau da, % 28rentzat ona edo oso ona da, eta % 31rentzat, txarra edo oso txarra. Desberdintasun hori azaltzeko arrazoi bat galdera nahasgarria dela izan daiteke; izan ere, Eusko Jaurlaritza aldatu berri da, eta parte-hartzaileek zalantzak izan zitzaizkion aurreko gobernuaren edo gobernu berriaren inguruko galdera ote zen.

¹ Bake-prozesuaren Behatoki Sozialaren galdetegia 2009ko maiatzean zabaldu zen; horregatik ez zen galderarik izan handik aurrera gertatu ziren gertakari garrantzitsuen inguruan: esate baterako, Eduardo Puellesen erailketa eta Giza Eskubideen Auzitegiaren epaiak Batasunaren ilegalizazioa berretsi izana.

9.2. Alderdi politikoen gaineko balorazioa.

Bake ekarpenaren inguruko baloraziorik onena Aralar (% 76) eta EB (% 62) alderdiek jaso dute. EAK eta EAJk ere balorazio positiboa jaso dute, nahiz eta EAJri dagokionean, % 31k uste duen haren ekarpena ez dela ez ona ezta txarra ere; portzentaje hori % 34raino igotzen da EAri dagokionean.

PPk (% 67), UPyDek (% 60) eta Ezker Abertzaleak (% 58) balorazio negatiboa jaso dute bakearen alde egin duten jardueraren inguruan.

9.3. Lokarriren jardueraren gaineko balorazioa.

% 89k ona edo oso ona iritzi dio. % 7k, ez ona ezta txarra ere, eta % 4k, txarra edo oso txarra.

10. Zer irizten diozu ETArek ekintzari?

Parte-hartzaileen % 57k uste du ETAk jada desagertu behar duela, baina haren amaiera elkarrizketaren bidez erraztu behar dela. % 14k bakarrik dio ez dagoela ados indarkeria erabiltzearekin, baina Estatuak ez duela baimentzen autodeterminazioa politikaren bidez lortzea. Aldiz, parte-hartzaileen % 11rentzat, ETAk irtenbide duin bat negoziatu behar du, presoen gaitatik abiatuta.

11. Zure iritzian, bake helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritza berriaren eraketa izango da

Erdiak baino gehiagok uste du negatiboa izango dela; aldiz, % 31k dio ez dela ez ona ezta txarra ere izango, eta % 16k bakarrik dio ona izango dela bakea lortzeko. Hona hemen emandako arrazoiak: 1) elkarrizketari uko egin izana eta 2) PPk haren gobernu-ekintzan izan dezakeen eragina. Aldiz, ez ona ezta txarra ere izango dela pentsatzen dutenen artean nabarmentzen da gobernu aldaketak bakerako aukera berriak zabaltzen dituela.

12. Egokiak iruditzen al zaizkizu Eusko Jaurlaritzak presoen senideei bi-daietarako emandako laguntzak?

Lautatik hiruri egokiak iruditzen zaizkio, sakabanaketak dakartzan giza ondorio negatiboak arintzeko neurriak direla pentsatzen dutelako. % 12 soilik dago neurri horien aurka.

13. Ezagutzen al dituzu Konpondu ekimena eta Udal Elkarrizketa Foroak? Zer iritzi duzu Konpondu ekimenari buruz? Eusko Jaurlaritza berriak mantendu beharko luke Konpondu ekimena?

Konpondu ekimena ezagutzen dutela diotenak erantzun dutenen erdia baino gutxiago dira. Ekimenaren berri dutenen artean, erdiek diote esperientzia positiboa izan dela; % 35ek, ez duela pluraltasunik eskaini, alderdi politiko guztiak inplikaturik egon ez direlako, eta % 15ek, ez duela inolako ekarpenik egin. Azkenik, % 60k uste du Konpondu ekimena mantendu beharko litzatekeela, eta % 4k soilik, amaitutzat jo beharko litzatekeela. Aipatu beharra dago Konpondu ekimena ezagutzen ez dutela dioten pertsona batzuek huraxe mantentzearen aldeko jarrera agertu dutela.

Egindako ekarpen batzuk

“Ez da inolako aurrerapausorik ikusten. Oraindik ez naiz errekuperatu ETA indarkeriara itzultzeak nigan sortu zuen kolpe latzetik.”

“Enpatia=0”

“Ez daukat oraindik argi nola eragingo duen gobernu aldaketak. Ikusten dut lehendakari berriak tantoa beretzat irabazi nahi duela eta Madrilen konplizitate handiagoa duela behar beste laguntza lortzeko.”

“ETAren indarkeria da, inolako zalantzarik gabe, lehenbizikoa edo, behintzat, larriena, bizitzarako eskubidea (oinarrizkoena) zuzen-zuzenean ukatzen duelako. Hor ez dut inolako aitzakiarik ikusten.”

“Egoerarik okerreanean ere, bakea lortzeko topaketa-bideak bilatu behar dira (lupa nahikoa ez bada, mikroskopio bidez).”

“Bakearen aldeko ibilaldi handi bat egin beharko litzateke, Euskal Herriaren ahalik eta sektore gehienak biltzeko modukoa. Beharbada, Penintsula osoa zeharkatzeko. Madrilerira iristeko.”

“Akordio politiko batez guztiok irabaziko dugu. Akaso ez bakoitzak aurretik espero duena, baina irabazi seguru. Eta honek beldurra sortzen du.”

Bake-prozesuaren egoerari buruzko azterketa bat.

Bake-prozesua abagune zailean dago.

Bake-prozesua blokatua eta trabatua dago, eta beste bultzada bat aurkitzeko aukerak duela urtebetekoak baino txikiagoak dira. Inplikaturiko alde guztietan erroten den mesfidantzaren ondorioz, elkarriketarako esparruak falta dira. Ez dago egoerari blokeoa kentzeko ekintzarik, inor ez dagoelako prest bere aldetik pausoak emateko. Eragile nagusiek, gainera, ez dute arriskatzeko eta ekimen berriak mahai gainean jartzeko borondaterik.

Egoera blokatzeko elementu nagusietako bat ETAren indarkeria da. Beste atentatu batzuk izan dira eta horrek erakusten du ez dutela epe laburrean tregoa edo su-eten berririk deklaratzeko asmorik.

Errealitatearen ondorio nagusia da gizartearen zati nabarmen batek egoeraren ikuspegi negatiboa duela; era berean, nola halako ezkortasuna zabaldu da aurrerapauso nabarmenak izateko aukerari buruz. Ez du behera egin gaiari loturiko interesak, baina ezkortasun horrek azal dezake herritarrek bakearen eta bizikidetzaren alde gutxiago mugitzea.

Ez dira baldintzak betetzen prozesu berri baterako.

Inguruabar horietan ez dira baldintzak betetzen prozesu berria garatzeko. Prozesua ez da ulertzen, aldeztatik aurretik ETAk indarkeriari amaiera emateko deklarazioa egiten ez badu eta elkarriketarako esparruak zehazten ez badira. Badago zailtasun erantsi bat: hots, Ezker Abertzalea baztertua eta legez kanpo egotea, eta prozesuan parte hartu beharko luke.

Prozesu berri baterako aukerak ETAren ahultasunean dautza, atentatuak egiteko gaitasun apalagoa duelako eta, denboraren joanean, euskarri soziala murrizten ari delako; era berean, Ezker Abertzalean indarkeriaren erabilgarritasunaren inguruko eztabaida azaleratzen hasi izanak prozesu berriari aukerak ematen dizkio.

ETAren indarkeriak desagertu behar du.

Bake-prozesuari berrekiteko eta huraxe garatzeko tresna nagusia ETAren adierazpen bat da, indarkeriari amaiera emateko borondatea argi eta garbi agertzeko. Horrelako pausoarekin batera, elkarriketa-prozesu bat egin beharko litzateke ETAk indarkeriari amaiera ematea errazteko.

Halaber, beharrezkoa da Giza Eskubideak beren adierarik zabalenean erabat zabaltzea eta egoera bidegabei amaiera ematea: esate baterako, presoen sakabanaketa eta torturari aurrea hartzeko mekanismoak ezartzea.

Egoerari blokeoa kentzeko bidea elkarriketa da.

Inor baztertu gabeko konponbide plurala bilatzeko bidea elkarriketa da. Elkarriketarako dei orokorrez haratago, elkarriketa zehaztu beharra dago eta, era berean, alde askotako mahaia abiarazi beharko litzateke, alderdiez, sindikatuez eta abarrez osaturik. Helburua da euskal gizartearen etorkizuna definitzea eta bizikidetzarako oinarriak finkatzea.

Herritarrek bere osoan egon beharko lukete elkarriketa-prozesu horretan inplikatua: hartara, prozesuaren aldeko sarea sortu eta topaketa guneak sustatu beharko lirateke, gizartearen ahotsa entzun eta kontuan hartu dadin. Azkenik, herritarrek bere akordio bat zilegitzeko ahalmena daukate herri-kontsulta baten deialdiaren bidez.

Lokarriren gomendioak bake-prozesu berrirako.

Behin galdetegiari emandako erantzunetatik lortutako emaitzak eta bake-prozesuaren egoerari buruzko ondorioak ezagututa, Lokarrik gomendio batzuk proposatu nahi ditu blokeo-egoera gainditzen lagundu dezaketelakoan:

1- Indarkeria amaitzea.

Bake-prozesu berria ahalbidetuko duten baldintzak sortuko badira, ETAk finko, zalantzarik gabe eta argi eta garbi erabaki behar du indarkeriari eta borroka armatuari amaiera ematea. Horrelako erabakiak bake-prozesuari ateak berriro zabaltzeko oztopo handienetako bat mugiaraziko luke.

2- Elkarrizketa sustatzea.

Hala erakundeek nola alderdi politikoek elkarrizketa hasi eta bide horri berrekin behar diote, bi helburu gogoan: 1) azken bake-prozesuaren porrotetik galdutako konfiantza berreskuratzea eta 2) gizartearen aurrean inor baztertu gabeko bizikidetzaren egituratzeko borondate garbia erakustea. Elkarrizketa alderdiek osaturiko mahai bat eratzearen bitartez zehaztu beharra dago. Ez dago horrelako prozesua azken ondorioetaraino eramateko moduko baldintzarik. Horregatik, egin beharreko lehen lana hauxe litzateke: elkarrizketa politikoa gidatu behar duten printzipioak eta oinarritzko arauak definitzea. Helburua hauxe litzateke: baldintza egokiak egoterakoan jorra daitekeen negoziazio eta akordio-prozesu posible bati oinarri sendoak ematea.

3- Itxaropenari eustea.

Herritarren sarea den aldetik, Lokarrik erronka hori eta gomendio hori bere gain hartzen ditu. Aurre egin behar zaio egoeraren ikuspegi negatiboegiari, eta itxaropenari eusten lagundu behar da. Ezkortasuna arriskutsua da etsipena sor dezakeelako; gainera, hainbeste urtez mobilizatzen eta gizarte lana egiten jardun ondoren, bakearen eta bizikidetzaren aldeko gizarte bultzada galtzeak murriztu egiten ditu atzerabiderik gabeko prozesu bat ahalbidetzen duten baldintzak sortzeko aukerak.

Biktimak eta berradiskidetzea

Galdetegiak eskainitako emaitzen azterketa.

1. Uste duzu gizartea kontziente dela euskal gatazkaren inguruan dagoen sufrimenduaz?

% 46k uste du gizartea ez dela nahikoa kontziente sufrimenduaz; % 33k, aldiz, dio kontzientea dela, eta % 19k, ezetz. Nabarmendu behar da euskaraz erantzun duten lagunen erdiek diotela gizartea kontziente dela sufrimendu horretaz.

2. Orain arte biktimen premiei erantzun zaiela eta biktimak errekonozituak izan direla uste al duzu?

Parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok uste du orain arte ez dela nahikoa izan biktimen premiei emandako erantzuna eta egin zaien errekonozimendua. % 20k pentsatzen du nahikoa izan dela orain arte egindakoa; aldiz, % 17k uste du ez dela biktimen egoera aintzat hartu.

Hona hemen erabili diren arrazoi nagusiak biktimen premiei emandako erantzuna nahikoa ez dela izan argudiatzeko: 1) euskal gizarteak luzaro iraun du besteen sufrimendutik urrun, dela berari eragin ez diola pentsatzeagatik, dela soilik kontziente izateagatik norbere pentsamoldetik hurbilen dauden pertsonak izandako sufrimenduaz, 2) ez da enpatiarik izan sufritu duten pertsonetik, eta gizartea ez da haien lekuan ere jarri, 3) biktima jakin batzuei soilik erantzun zaie, gainerakoak ahanzturan utzita eta 4) errekonozimendu hori berandu iritsi da eta luzaroan sufrimendua ez da kontuan hartu.

Biktimei erantzun zaiela pentsatzen dutenen artean nabarmentzen da orain politikariak eta gizartea, oro har, azkenean sentsibilizatuak daudela sufrimenduaz, biktimen egoera moldatzen saiatu dela eta biktimei omenaldia egin zaiela.

3. Zer iritzi duzu presoentzako omenaldiei buruz?

% 41rentzat, bidezkoak dira, baldin eta ez badute indarkeria bultzatzen. Aldiz, % 36k dio ez direla egokiak, eta % 21ek, badela omenaldiak ospatzeko eskubidea.

Indarkeria bultzatzen ez badute, bidezkoak direla dioten askok zalantzak adierazten dituzte gai horren gainean. Uste dute indarkeria goraipatzeko osagai bat izan dezaketela.

Omenaldiak egokiak ez direla pentsatzen dutenek azpimarratzen dute gizartean haserrea eragiten dutela eta presoek eragindako biktimek laidotzat har ditzaketela; gainera, duintasunaren eta errespetuaren oinarritzko balioak errespetatzen ez dituen jokamolde bat goraipatzea da. Hori dela eta, pertsona askok proposatzen dute, nolahi ere, omenaldiak pribatuak izan daitezela.

Azkenik, omenaldiak ospatzeko eskubidea badela diotenen artean azpimarratzen da presoek ezin zaiela utzi senideen eta lagunen kariñorik gabe, eta horrelako ekitaldiak adierazpen-askatasunaren barruan daudela.

4. Zer iritzi duzu ETAREN biktimentzako omenaldiei buruz?

Galdetegiari erantzun dioten pertsonen erdiak baino gehiagok dio omenaldiek motibazio politikoko indarkeriaren biktima guztientzat izan beharko luketela. Parte-hartzaileen ia % 20 inguruk beste aukera bat hautatu dute; hau da, beharrezkoak direla haien sufrimendua oroitzeke, zauriak arintzen laguntzen dutela eta, gehiegi eginez gero, kaltegarriak izan daitezkeela. Azkenik, % 14k uste du ez dutela zauriak sendatzen laguntzen, zabalik mantentzen dituztela baizik.

Gehienek uste dute biktimen artean bereizketa egitea ez dela lagungarria euskal gizarteak dituen arazoak gainditzeko. Aldiz, beharrezkoak direla diotenek azpimarratzen dute omenaldiek ahanztura galarazteko balio dutela.

Gehiegi eginez gero, kaltegarriak izan daitezkeela pentsatzen dutenek diote arazoak gaiztotu, sufrimendua banalizatu eta biktimizazioa eragin dezaketela.

Era berean nabarmengarria da parte-hartzaile askok ETAREN biktimentzako omenaldiei ematen zaien erabilera politikoa azpimarratzen dutela.

5. ETAREN biktimekiko begirune eta babes bera izan behar dute GALen eta antzeko beste erakunde batzuen biktimek?

Erantzuna oso argia da. Hamarretatik bederatzik uste du begirune bera izan behar dutela.

Berriz ere, aurretik erabilitako argudioak erabiltzen dira; esate baterako, sufrimendu guztiak aintzat hartu behar direla, eta giza eskubideen urraketa orok begirune berbera izan behar duela.

6. ETAREN biktimekiko begirune bera eskaini behar zaie Estatu-agenteei eragindako Giza Eskubideen urraketan biktimei?

Halaber, modu zabal-zabalean erantzun da (% 86) begirune bera eskaini behar zaiela. % 7k soilik uste du ezetz.

Argudio berberak agertzen dira: denak dira biktima eta denek tratamendu berbera jaso behar dute.

7. Uste al duzu hildako ETAko militanteak biktimatzen hartuak izan behar direla?

Parte-hartzaileen % 40k dio biktimatzen hartuak izan behar direla, inguruabarren arabera. Honelako inguruabarrak aipatzen dira: giza eskubideen urraketak; adibidez, torturak, segadak, segurtasun-indarren abusuak, desagertzeak, etab. Era berean, adierazi da ETAko militanteen heriotza gertatu ez izana atentatu bat egiten saiatzen ari zirela.

% 33k dio biktimatzen hartuak izan behar direla, haien egoera gatazka baten erdian gertatu delako. Aldiz, % 17k dio ez direla biktimak, haiek beren borondatez indarkeria erabiltzea erabaki dutelako.

8. Zer ulertzen duzu berradiskidetzeaz?

Hona hemen zer ondorio atera daitezkeen galdera honi emandako erantzunetatik:

- 1- Berradiskidetzea aurkaria errespetatzea da, hau da, bestela pentsatzen duena.
- 2- Berradiskidetzea enpatia-ariketa da, hau da, aurkaria ulertzeko ahalegina.
- 3- Berradiskidetzea gertatuko bada, oinarrizko giza eskubideak errespetatu beharko dira.
- 4- Berradiskidetzea da mugarik gabe aitortzea azken urteotan eragindako eta jasandako sufrimendua.
- 5- Berradiskidetzea barkamena eskatzea da, hala banaka, eragindako kaltearengatik, nola sozialki, sufrimenduari bizkarra eman izanagatik.
- 6- Berradiskidetzea elkarriketarako eta amore emateko ariketa da bizikidetzaren hobetzeko.
- 7- Berradiskidetzea xede politikoa lortzeko indarkeriaren erabilera errefusatzeko da eta, era berean, indarkeria baliatzeko mehatxu oro ezabatzea.
- 8- Berradiskidetzea etorkizunari begiratzeko eta elkarbizitzeko prozesua da
- 9- Berradiskidetzea oroitzapenean bermatzen da, iraganean zer gertatu den ahaztu eta ezkutatu gabe.
- 10- Berradiskidetzea da behin bake-akordioa lortuta jorratu behar den hurrengo fasea.

9. Beharrezkoa al da ETaren indarkeria amaitzea berradiskidetze prozesu bat abiatzeko?

Parte-hartzaileen erdiek baino gehiagok uste dute beharrezkoa dela indarkeria hori amaitzea, baina haien iritziz, abiatu bitartean berradiskidetzea prestatuz joan daiteke. % 30en iritziz, indarkeria hori amaitzea ezinbestekoa da, eta % 12k ez du beharrekotzat jotzen.

Galdera honetan argudiatzen da ez dela itxoin behar ETaren indarkeria amaitu arte elkarriketan aritzeko, nahiz eta aitortzen duten inguruabar horietan zaila dela akordioak egitea. Aldiz, ezinbestekotzat jotzen dutenen argudioa da oso korapilatsua dela hitz egitea eta negoziatzea, indarkeriaren mehatxuak bere horretan badirau.

10. Nola jorratu behar da iragana berradiskidetze prozesu batean?

Parte-hartzaileen erdiek diote iragana kritikoki berrikusi beharra dagoela, eta % 32k, egiaren batzordea sortu beharra dagoela. % 3k soilik uste du hobe dela iragana ez ukitzea, ezta nahastea ere.

Bake-prozesuaren Tokiko Behatokiek emandako ideiak.

Bake-prozesuaren Tokiko Behatokiek sentsibilitate desberdineko herritarrak bildu dituzte, berradiskidetzearen inguruan ideiak, kezkak eta proposamenak partekatzeko. Behatoki guztietan, parte hartzeko, hitz egiteko eta entzuteko giroa izan da, hiru faseotan banaturik:

- lehenbiziko zatiaren helburua izan da bakean eta berradiskidetzean oinarrituriko etorkizuna irudikatu eta partekatzea.
- bigarren zatian eztabaidatu eta zehaztu dira berradiskidetzearen agertokira iritsi ahal izateko beharrezkoak diren pausoak.
- hirugarren eta azken zatian aukeratu behar izan dira berradiskidetzea lortzeko beharrezkoenak edo premiazkoenak diren pausoak.

Ondoren jasota daude hamaika bilera haietan lortutako ondorio nagusiak. Bilerak herriotan egin dira: Bilbo-Abando-Alde Zaharran, Bilbo-Indautxu-Santutxun, Donostian, Galdakaon, Gasteizen, Getxon, Hernanin, Irunen, Iruñean, Portugaleten eta Tolosan.

Hona hemen gure gogoan dagoen etorkizuna; hau da, berradiskidetzean eta bake-bizikidetzan oinarrituriko etorkizuna, eta hartara jo nahi dugu.

Bileretako akten edukiak erakusten du bizikidetzaren eta berradiskidetzearen epe laburrean lortzeko desio handi handia. Bileretan parte hartu duten lagunen ekarpenak berradiskidetzean oinarrituriko etorkizunaren irudi oso adierazkorren ingurukoak dira. Era berean, proposamen zehatzagoak egin dituzte ondoko ideia hau edukiz hornitzeko: xedea da errespetuan, aniztasunean, errekonozimenduan, enpatian, indarkeriaren amaieran eta giza eskubide guztien errespetuan oinarrituriko bizikidetzaren duen gizartea lortzea.

1. Errespetuan eta aniztasunean oinarrituriko bizikidetzaren.

Gogoan daukagun gizartean pertsona guztiek beren ideiak, xedek eta borondateak adierazteko aukera berberak izan behar dituzte, bestela pentsatzen duena errespetatuta. Inolako bazterketarik gabeko bizikidetzaren, zerk elkartzen eta batzen gaituen bilatuko duena, alderdikierarik eta frentismorik gabea.

2. Errekonozimenduan eta enpatian bermatutako bizikidetzaren.

Guztien arrazoiak ulertu eta aintzat hartuko dituen gizartea. Elkarrizketa eta akordioa dira bizikidetzaren hori sendotzeko bidea, besteen jarrerak logikoak eta arrazoigarriak izan daitezkeela aitortuta, eta inork bere nortasunari uko egin behar izan gabe.

3. Giza Eskubideak errespetatuko dituen indarkeriarik gabeko bizikidetzaren.

ETAren indarkeria amaitua egongo den gizartea, indarkeria hori inorentzat mehatxua izango ez dena eta giza eskubideak urratzen dituzten motibazio politikoko beste ekintza batzuk desagertuko direnak; adibidez, tortura, sakabanaketa eta ilegalizazioak.

Berradiskidetzearen adibide grafikoak

Erakundeek herriarengandik hurbil egon beharko lukete eta herriaren zerbitzuan (eskutik helduta dauden pertsonen marrazki bat dago), eta azpian hauxe dago idatzita: “Denok elkarrekin gizartea eraldatuko dugu”. (Tokiko Behatokia, Bilbo-Abando-Aldez Zaharra)

Giza eskubideak errespetatuko dituen eta proiektu, ideia eta pertsona guztiak garatzeko moduko marko bat. (Tokiko Behatokia, Bilbo-Indautxu-Santutxu)

Niretzat berradiskidetzea da pertsona guztiak askatasunez gizarte esparru guztietan parte hartzeko aukera izatea, denok gizarte pluralean eta demokratikoan partaide garela elkarri aitortzen diogula, inor baztertu gabe eta inposaketarik gabe. (Tokiko Behatokia, Donostia)

Auzokideen erkidego bat, eta haien balkoietan Athletic-eko eta Real Madrilgo banderak berdintasunez zintzilik egotea; ikurrinak eta Espainiako banderak. (Tokiko Behatokia, Galdakao)

Bi politikari oihuka eztabaidan Legebiltzarrean, baina hitz hutsetan, burutik ere pasa gabe indarkeria erabiltzea edo giza eskubideak urratzea. *Pankarta bat, hauxe idatzia duena: “eskerrik asko – gracias”, aurpegian irribarrea ageri duen jendeak eramana (prozesuaren bukaeran egindakoa, eta gu guztioi eskerrak emateko, bukaerara iritsi izanagatik). (Tokiko Behatokia, Gasteiz)

Niri, bakeak, berradiskidetzeak 1998ko oroitzapen bat ekartzen dit gogora. Topikoa izan daiteke baina irratia-ekin eta tregoarekin albistearekin esnatu nintzen. Lehendabizi nire alaba Garazi ikusi nuen, sehaskan, eta nire baitan pentsatu nuen: handia zarenean, ez duzu indarkeriarik ikusiko. Horrekin batera, lasaitasunezko sentimendu bat nuen, halako atsedean bat, eta gogoan nerabilen, tregoa, bakea, behin betikoa izatekotan, gure seme-alabak bezala zaindu eta mimatu beharko genuela. A zer pisu handia kendu nuen buru gainetik! Horixe sentitu nuen. Hasperen handia egin nuen, baina oso atsegina! (Tokiko Behatokia, Getxo)

Mahai bat-argazki bat: PPTik hasi eta Batasuna arte bertan direla elkarri eskua emanez (Tokiko Behatokia, Hernani)

Berradiskidetzea...eta orain zer? Lanera, disfrutatzeraz...bizitzera elkarrekin, ondoan (Tokiko Behatokia, Irun)

Zuhaitz bat, adar eta hosto guztiak izerdi, eguzki eta ur berbera jasotzen dutelako. (Tokiko Behatokia, Iruña)

Herritarren gizartea imajinatzen dut; funtsean, herritarrena; irekia eta aurrerazalea, berritzailea eta etorkizunaren aurrean baikorra. Amorratio handirik gabeko gizartea; eta gai izan beharko genuke “etsai politikoarengan” ikusteko geuregan suposatzen eta/edo ezagutzen ditugun arrazoi eta desarrazoi berberak. (Tokiko Behatokia, Portugalete)

Gizarte honen koloreak bilduko dituen horma-irudia. Kolore bakoitzari bere tokia eman. Horma irudi zabal bat egin, ahal diren kolore desberdinak adierazteko. (Tokiko Behatokia, Tolosa)

Berradiskidetze-prozesu posiblean eman beharreko pausoak

Bake-prozesuaren Tokiko Behatokitian parte hartu dutenek berradiskidetze-prozesu posible baten barruan eman beharreko pausoak proposatu eta aukeratu zituzten. Aukeraturiko ekintza zehatzak puntu hauetan laburbil daitezke:

- 1- ETAren indarkeria amaitzea.
- 2- Alderdien Legea indargabetzea eta Ezker Abertzalearen parte-hartze normalizatua.
- 3- Gatazkaren atzean dauden interes partikularrak ezabatzea.
- 4- Ideia eta proposamen politiko guztiak errespetatzea, eta ideia horien bideragarritasuna onartzea, gehiengoren bermea badute.
- 5- Giza Eskubide guztien errespetua pertsona eta talde guztientzat.
- 6- Eragindako kaltearen ordaina
- 7- Memoria historikoa berreskuratu eta hari eustea.
- 8- Elkarrizketaren bidez, bizikidetzarako esparru berdin bat erabakitzea, denok partekatutakoa, kontu politikoak barne: indarkeriaren amaiera, aukera guztien ordezkartza, proposamen guztiak zilegi direla onartzea.
- 9- Herritarrak errespetuan eta aniztasunean hezi eta presta daitezen sustatzea; batez ere, gazteenen artean.
- 10- Gizartearen bultzada politikoa, gizarte mugimenduen bitartez, politikariei konponbide zehatzen eskakizunak eginez.

Ondorioak.

Euskal gizarteak ez du behar hainbat aintzat hartu biktimen sufrimendua.

Autokritika egin behar da. Euskal gizarteak bere bizitzetatik urrun dagoen zerbait bezala hauteman du sufrimendua. Funtsezko ondorioa izan da ez direla pausoak eman pertsona askok zuten sufrimendua ulertzeko. Errealitate hori are nabarmenagoa izan da planteamendu politiko propioetatik urrun zeuden biktimekiko.

Errekonozimenduak neurrikoa eta egokia izan behar du; sufrimendua gainditzen lagundu behar du eta ez ditu sufrimendu gehiago ekarri behar. Oreka aurkitu beharra dago adierazpen-askatasunaren eta biktimen gaineko oroitzapenarekiko errespetuaren artean; hau da, hori argi eta garbi ageri da presoen omenaldiei dagokienez, ezinbesteko baldintza baita indarkeria ez goraitpatzea.

Sufrimendua aitortzea gai sentikorra da eta enpatia behar du.

Enpatia beharrezkoa da; enpatia gizabanako bakoitzaren esparruari dagokio, bai eta esparru kolektiboari ere. Ezinbestekotzat jotzen da sufritu duten pertsonen lekuan jartzea, haien egoera hobeki ulertzeko, egoera hori aintzat hartzeko eta, ahal den neurrian, ordaina emateko.

Gizarte eta kolektibo gisa garrantzitsutzat ere jotzen da errealitate horretara hurbiltzea. Gizartearen zati batek jasan duen sufrimenduaren errekonozimenduan sozialki jarduterakoan enpatia landu behar da, beste biktima batzuegan halako laido-sentsazioa ez sortzeko.

Biktimak aitortzeko irizpideak zabalgarria izan behar du.

Errekonozimendua ez da nahikoa izan, baina hori nabarmenagoa izan da GALEk eta antzeko beste erakunde batzuek eta segurtasun-indarren egintza kontrol gabeek eragindako biktimei dagokienean. Biktima nor den esaterakoan sor daitezkeen zalantzen aurrean, irizpide zabalgarriaren aldeko hautua egin da; hau da, biktimatzat jotzen dira azken urteotan kalte larriak jasan dituzten pertsona guztiak.

Irizpide zabalgarri hori ez da mugagabetzat hartzen. Horren adibiderik garbiena atentatua egin nahi izaterakoan hilik gertatu diren ETAko militanteak dira, ez baitira biktimatzat hartzen.

Berradiskidetzea indarkeriaren amaieran, Giza Eskubideen errespetuan eta elkarrizketan datza.

Berradiskidetze-prozesua egituratzeko oinarritzko printzipioak indarkeriaren amaiera, giza eskubideen errespetua eta elkarrizketa dira, azken hori desberdintasunak kudeatzeko lanabes gisa. Horrelako printzipiorik gabe, berradiskidetzea presta daiteke, baina ezinezkoa izango da huraxe garatzea.

Berradiskidetzea, azken finean, euskal gizartearen aniztasuna aintzat hartzeko deia da.

Berradiskidetze-prozesuaren helburua gizartearen elkar bizitzeko oinarriak finkatzea da, nortasunak, proiektuak eta proposamenak errespetatuta; hau da, euskal gizarteari datxekion aniztasuna errespetatuta.

Era berean, berradiskidetze-prozesua etorkizunari begiratzea da iraganeko sufrimendua berriz ere ez gertatzeko baldintzak sortze aldera, betiere eragindako kalte guztia gogoratuta eta aitortuta. Alde horretatik, barkamena eskatzea desiragarria litzateke; hau da, konpromiso bat litzateke, berriro indarkeria ez erabiltzeko eta berriro giza eskubideak ez urratzeko gure arteko desberdintasunak moldatzerakoan.